

Hizkuntza indigenak desagertzeak sendabelarren ezagutza galtzea eragingo du

Sendabelarren gaineko ezagutza galbidean dagoela jakinarazi dute Zuricheko Unibertsitateko ikertzaileek. [PNAS aldizkariaren arabera](#), Amazonia, Ginea Berria eta Ipar Amerikako sendabelarren propietate eta erabilerak hizkuntza indigenetan baino ez dira transmititzen. Gainera, hizkuntza indigena bakar batean transmititzen dira sendabelarren % 75, eta ahozko komunikazioan soilik. Hizkuntza indigenak desagertzeak, beraz, ez du eragingo altxor kultural ordezkaezin bat galtzea bakarrik; kolokan jartzen ditu sendabelarren ezagutza tradizionala bera eta etorkizunean botika berriak sortzeko gaitasuna.

Izan ere, sendabelarren ezagutza tradizionaletik atera dira egungo botika asko. Azido azetilsalizilikoaren osagai aktiboa, esaterako, zume zuritik erauzten da (*Salix alba*), eta morfinarena, mitxoletetatik (*Papaver somniferum*).




Zientzialarien ustez, hizkuntza txikituetako eskola indigenak dira giltzarri ez dadin galdu potentzial farmakologiko handia duen ezagutza hori guztia. ARG.: Goresam.

Amazonian egoera beste inon baino larriagoa da, sendabelarren ezagutzaren % 91 hizkuntza bakarrean transmititu baita. Eta ezagutza berezi horiek dituzten hizkuntzak dira, hain zuzen, desagertzeko arrisku handiena dutenak. Ikertzaileen ustez, eskola indigenak dira giltzarria ezagutza hori guztia ez dadin galdu. ●

Jokoen teoria, metastasien jokaera aztertzeke

EHUko Anali Ekonomikoko ikertzaileak eta Biocrucesko patologoak elkarlanean ari dira [tumoreetako zelulak nola lehiatzen diren ulertzeko](#). Horretarako, jokoen teoria erabiltzen ari dira. Frogatu dutenez, jokoen teoria baliagarria da, batetik, tumore-zelulen arteko eta, bestetik, tumore-zelulen eta zelula ostalarien arteko elkarrekintzak argitzeko.



ARG.: Jezper / 123RF.

Hasteko, tumore bateko zelulen heterogeneotasunak zer eragin duen ulertzen saiatu dira, modelizazioen bidez. Hala, tumoreetako zelulen arteko lehia nolakoa den ikusteko ereduak sortu dituzte, eta hipotesi hau planteatu dute: zelula tumoralen azpimultzo baten erantzun bat da metastasia. Haren bitartez, egonkortasun kolektiboa bilatzen dute zelulek, tumore primariotik urrun, desagertzea saihesteko.

Ikertzaileen arabera, joko-teoriak agerian jarri duen aierua da ezen, tumoreetako zelulen heterogeneotasuna zenbat eta handiagoa izan, orduan eta kaltegarriagoa izan litekeela minbizi-zelulentzat, eta orduan eta hobea pazientearentzat. Alegia, zelula-dibertsitate handiko minbiziak hobek dira, pazientearentzat, dibertsitate txikiko tumore batek eragindako minbizi baino. Hortik ondorioztatu dute epe luzera litekeena dela ez izatea ona tumore bateko zelula-mota guztiak ezabatzea. ●



[Albiste gehiago, webgunean](#)